

Oier Guillan

SEMELLACIÓN(1)

(ENTRA o recién chegado. En primeiro lugar mira ao público. Despois mide cun metro o chan, saca un ancho celo e limita un metro cadrado. Introduce dentro do metro cadrado unha pequena butaca e séntase. Fálalle ao público).

Chamádeme inxenuo, seica esteades no certo, pero se non podo cambiar o mundo, polo menos cambiarei un metro cadrado.

Chamádeme idealista, seica esteades no certo, pero se non podo facer todo o camiño, polo menos vou dar un paso.

Chamádeme antidemocrático, seica esteades no certo, pero se non podo atopar democracia en ningures, inventarei algo novo neste metro cadrado.

Chamádeme tolo, seica esteades no certo, pero se a vosa é a razón da maioría, prefiro ser irracional.

Chamádeme utópico, seica esteades no certo...

(Silenzo).

Ao carallo.

(Ri con tolería. Fala con ironía).

Merquei este metro cadrado seguindo as leis da sociedade, as vosas, as leis de todos nós. Seis mil euros o metro cadrado, podía ler en moitos lugares, coa desculpa da compravenda de casas. Pero, eu conseguín mercar un metro cadrado tras facer recolleita do meu escaso patrimonio, coa axuda dun préstamo evidentemente. Comprei o meu metro cadrado, aquí, na Galiza, enriba deste o meu escenario. E farei o que me pete con el.

Merquei este metro cadrado seguindo as leis da sociedade, as vosas, as leis de todos nós. Non tería que ser, poren, perigoso para ninguén...

(Desafía ao público).

E se non podo cambiar o mundo, polo menos cambiarei este metro cadrado.

Podedes velo?

É fermoso este metro cadrado, fermoso e verde. Aquí non hai infraestruturas xigantescas, nin estradas que non serven para nada, nin inflación, nin especulación.

Neste metro cadrado abundan as zonas verdes, e a xente fode nos xardíns, sen esconderse, sen vergonza.

Neste metro cadrado podes ser tolo sen sentirte mal, e podes ser raro sen ser marxinado.

Neste metro cadrado todo o que é raro é normal.

Neste metro cadrado podes ser libre sen pedir permiso. Neste metro cadrado podes ser libre para definir a liberdade como ti queiras.

Neste metro cadrado non hai que dicir quérote, para ser querido de novo.

Neste metro cadrado as beirarrúas teñen espellos nas lousas

Lese poesía aos nenos para durmir

As sinais de tráfico informan da dirección dos sentimentos.

O café co leite perdura na cunca días e días enteiros

Recóllense cigarros para reciclar poemas esquecidos

Os nenos e os vellos teñen parlamentos propios

As mulleres non precisan reivindicar igualdade

Os violadores non son máis que personaxes dun pésimo filme de terror

Nos bares os baños cheiran ben

O alcol non dá resaca

A xente toma o sol eponse azul
Está na melancolía a única orixe do cambio climático
Os museos de arte son hoteis para emigrantes
Os calzóns e as bragas nunca se ensucian
As casas de cultura nunca se privatizan...

Neste metro cadrado a morte sempre chega tarde
Ninguén esquece a quen morre
Faise guerra unicamente á guerra

Neste metro cadrado non hai presos políticos, e non está a política presa.

Neste metro cadrado a imaxinación é libre
Neste metro cadrado podes ser libre sen pedir permiso

(De aquí en adiante, pouco a pouco e de maneira continua comezan a se escoitar cada vez máis o son de avións que se achegan, até estar moi presentes ao final).

Neste metro cadrado faise guerra unicamente a guerra...
Neste metro cadrado...
até que alguén o invada

Merquei este metro cadrado seguindo as leis da sociedade, as vosas, as leis de todos nós!
Non tería que ser, poren, perigoso para ninguén!

Neste metro cadrado, as bombas dos avións non son máis perigosas que os preservativos usados...
Neste metro cadrado é libre a imaxinación... é imaxinación... neste metro cadrado...

Chamádeme inxenuo, seica esteades no certo, pero se non podo cambiar o mundo, polo menos cambiarei un metro cadrado.
Chamádeme idealista, seica esteades no certo, pero se non podo cambiar un metro cadrado...
Cambiarei un minuto dun metro cadrado.

Chamádeme utópico...

ao carallo.

(Os sons das bombas que lanzan os avións toman o lugar do texto. O protagonista mira ao público cun sorriso partido mentres vai facéndose escuro)

(1) Nota da tradutora: o título orixinal da peza de teatro, Dirudimena, é unha palabra creada entre dirudi (semella) e irudimena (imaxinación).

DIRUDIMENA

(IRITSI BERRIA sartzen da. Publikoari begiratzén dio lehenik. Ondoren metro batekin lurra neurtu, zelo zabala atera eta metro karratu bat zedarritzen du. Butaka txiki bat sartzen du karratuaren barruan eta eseri egiten da. Publikoari hitz egiten dio).

Dei iezadazue inozoa, agian arrazoia izango duzue, baina ezin badut mundua aldatu, metro koadro bat behintzat aldatuko dut.

Dei iezadazue idealista, agian arrazoia izango duzue, baina ezin badut bide osoa egin, urrats bat behintzat emango dut.

Dei iezadazue antidemokratikoa, agian arrazoia izango duzue, baina ezin badut demokrazia inon aurkitu, metro koadro honetan zerbait berria asmatuko dut.

Dei iezadazue eroa, agian arrazoa izango duzue, baina gehiengoaren arrazoa baldin bada zuena, nahiago dut irrazionala izan.

Dei iezadazue utopikoa, agian arrazoa izango duzue...

(Isilunea).

Niri bost.

(Barre ero samarra egiten du. Ironiaz mintzo da).

Gizarteko legeak jarraituz erosi dut metro koadro hau, zuen, gu guztion legeak jarraituz. Sei mila euro metro koadroa, irakur nezakeen leku askoan, etxeen salmentaren aitzakian. Bada, nik neure ondasun eskas guztiak bildu eta metro koadro bat erosteko adina diru lortu dut behintzat, mailegua eskatuta noski. Nire metro koadroa erosi dut, hemen, Galizian, eskenatoki honen gainean. Eta nahi dudana egingo dut berarekin.

Gizarteko legeak jarraituz erosi dut metro koadro hau, zuen, gu guztion legeak jarraituz. Ez nintzateke, hortaz, inorentzat zertan arriskutsua izan behar...

(Erronkari publikoari).

Eta ezin badut mundua aldatu, metro koadro hau behintzat aldatuko dut.

Ikus dezakezue?

Metro koadro hau ederra da, ederra eta berdea. Bertan ez dago azpiegitura erraldoirik, ez ezertarako balio ez duen errepiderik, ez inflaziorik, ez espekulaziorik.

Metro koadro honetan berdeguneak dira nagusi, eta jendeak larrua jotzen du lorategietan, ezkutatu gabe, lotsarik gabe.

Metro koadro honetan eroa izan zaitezke arraroa sentitu gabe, eta arraroa izan zaitezke baztertua izan gabe.

Metro koadro honetan arraroa den guztia da normala.

Metro koadro honetan askea izan zaitezke baimenik eskatu gabe. Metro koadro honetan askatasuna zuk nahi bezala definitzeko askea izan zaitezke.

Metro koadro honetan ez dago maite zaitut esan beharrik, ostera maitatua izateko.

Metro koadro honetan espaloiek ispiluak dituzte harlauzen ordez

Haurrei poesia irakurtzen zaie lo egiteko

Trafiko seinaleek sentimenduen norabidea adierazten dute

Kafesneak egun osoak irauten ditu kikara betean

Poema ahantziak birziklatzeko biltzen dira zigarroak

Haurrek eta adinduek parlamentu propioa dute

Emakumeek ez dute berdintasuna aldarrikatzeko beharrik

Bortxatzaileak terrorezko filma txar bateko pertsonaiak besterik ez dira

Tabernetan komunek ondo usaintzen dute

Alkoholak ez du biharamunik uzten

Jendeak eguzkia hartu eta urdina jartzen da

Malenkonia da aldaketa klimatikoaren eragile bakarra

Arte museoak etorkinentzako hotelak dira

Galtzontziloak eta kuleroak ez dira inoiz zikintzen

Kultur etxeak ez dira sekula pribatizatzen...

Metro koadro honetan heriotza beti iristen da berandu

Inork ez du hiltzen den inor ahazten

Gerrari egiten zaio soilik gerra

Metro koadro honetan ez dago preso politikorik, eta ez dago halaber politikarik preso.

Metro koadro honetan irudimena askea da

Metro koadro honetan askea izan zaitezke baimenik eskatu gabe

(Hemendik aurrera, pixkanaka eta modu jarraian, urrunetik gerturatzen ari diren hegazkinen soinua nabarmentzen joango da, amaieran protagonismo handia izan arte).

Metro koadro honetan gerrari egiten zaio soilik gerra....

Metro koadro honetan...
norbaitek inbaditzen duen arte.

Gizarteko legeak jarraituz erosi dut metro koadro hau, zuen, gu guztion legeak jarraituz! Ez nintzateke, hortaz, inorentzat zertan arriskutsua izan behar!

Metro koadro honetan, hegazkinen bonbak ez dira preserbatibo erabiliak baino arriskutsuagoak...

Metro koadro honetan irudimena askea da... irudimena da... metro koadro honetan...

Dei iezadazue inozoa, agian arrazoa izango duzue, baina ezin badut mundua aldatu, metro koadro bat behintzat aldatuko dut.

Dei iezadazue idealista, agian arrazoa izango duzue, baina ezin badut metro koadro bat aldatu...

metro koadro bateko minutu bat aldatuko dut.

Dei iezadazue utopikoa...

niri bost.

(Hegazkinek jaurtitzen dituzten bonben soinuak hartzen du testuaren lekukoa. Protagonistak irribarre hautsi batekin egiten dio so publikoari ilunera goazen bitartean).